

## BESTELAKO XEDAPENAK

### HEZKUNTZA SAILA

# 179

*AGINDUA, 2018ko urtarrilaren 15ekoa, Hezkuntzako sailburuarena. Honen bidez, ezartzen dira Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailaren mendeko Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoetan eta itunpeko ikastetxe pribatuetan 2018-2019 ikasturtean izena emateko eskaerak aurkezteko egutegi komuna eta onarpen-epea, bai eta ikastetxe horietan ikasleak onartzeko jarraibideak ere.*

Euskal Autonomia Erkidegoan hezkuntzaren eskumena duen sailaren agindupeko herri-ikastetxeetan eta Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza, Batxilergo eta erdi-mailako eta goi-mailako Lanbide Heziketako itunpeko ikastetxe pribatuetan ikasleak onartzea nahiz ikasturtea hasi eta gero ikasleak eskolatzea arautzeko urtarrileko 9ko 1/2018 Dekretuaren 10. artikuluan ezartzen denaren arabera, urtero, hezkuntzaren eskumena duen sailburuaren agindu baten bidez, eskabideak aurkezteko epe komuna irekiko da eta prozedurako hurrengo faseei dagozkien epeak ezarriko dira.

Horrenbestez, 2018-2019 ikasturtean, egutegia eta prozedura-arauak ezarri behar dira, Euskal Autonomia Erkidegoan fondo publikoen bidez finantzatuko diren ikastetxeetan bete daitezkeen ikasleak onartzeko orduan. Hori guztia dela-eta, honako hau

#### XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Agindu hau aplikatu beharko da Hezkuntza Sailaren mendeko herri-ikastetxeetan eta itunpeko ikastetxe pribatuetan, Haur Hezkuntzako bigarren zikloan, Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan. Halaber, Hezkuntza Sailaren mendeko herri-ikastetxeetako 2 urteko geletan ere aplikatu beharko da, eta baita itunpeko ikastetxe pribatuetako 2 urteko haurren geletan ere, baldin eta Hezkuntza Sailak Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxe pribatuei ematen dizkieten diru-laguntzei heldu nahi badiete, eta betiere urtarrilaren 9ko 1/2018 Dekretuko lehen xedapen gehigarriak araututakoari jarraituz.

2. artikulua.– Ikasleak onartzeko prozesu honetan parte hartu beharko dute aurreko artikuluan adierazitako ikastetxeetan 2 urteko geletan onartuak izan nahi duten ikasle guztiek. Era berean, eskaera egin beharko dute ikastetxe horietan lehen aldiz sartu nahi duten ikasle guztiek, baldin eta sartu nahi badute Haur Hezkuntzako bigarren zikloan, Lehen Hezkuntzan edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan. Bestetik, onarpen-prozesu honetan eskaera egin beharko dute lehendik eskolatuta dauden ikasleek ere, baldin eta hezkuntzako maila edo etapa horiek egiteko ikastetxez ala hizkuntza ereduaz aldatu nahi badute edo behar badute.

Automatikoki bermatuko da ikastetxe bereko etapa eta maila desberdinetan ikasten jarraitu ahal izatea, eta, ondorioz, ez da onartzeko eskaerarik egin beharko, 2 urteko gela batera sartzeko izan ezik. Ikastetxe pribatuetan, 2 urteko ikasleek 3 urteko geletan jarraitzea bermatzeko, ikasleak onartzeko prozesu honetan parte hartu beharko dute; horretaz gain, matrikulatutako ikasleak, gutzira, ez dira izango ikastetxe horretako 3 urteko geletarako onar daitezkeen plazak baino gehiago (hezkuntzako eskumena duen Sailak planifikatzen ditu horiek).

3. artikulua.– Eskaerak aurkezteko egutegi eta onarpen-epe komunak.

Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako herri-ikastetxeetan eta itunpeko ikastetxeetan, eskaerak aurkezteko eta ikasleak onartzeko epeak berak izango dira. Hona, beraz, epeak finkatzeko egutegia:

a) Eskabideak eta egiaztagiriak aurkezteko: urtarrilaren 29tik otsailaren 9ra arte.

b) Eskatzaileen zerrenda argitaratzeko: otsailaren 20a.

c) Behin-behineko zerrendak argitaratzeko: martxoaren 1a.

d) Behin-behineko zerrendei erreklamazioak egiteko: martxoaren 14ra arte.

e) Eskabideari uko egiteko: martxoaren 14ra arte.

f) Behin betiko zerrendak argitaratzeko: martxoaren 22a.

g) Bigarren eta hirugarren aukeren zerrendak argitaratzeko: apirilaren 11a.

h) Zerrendei gora jotzeko errekursoak jartzeko: apirilaren 23ra arte.

i) Datu estatistikoaren grabazioa: apirilaren 19tik 26ra. Halaber, irailean, Hezkuntza Saileko Unitate Estatistikoek adierazten dieten epean, balidatu beharko dituzte aipatutako aplikazio informatikoan behin betiko matrikula datuak.

4. artikulua.– Onarpen-prozedurari buruzko jarraibideak.

Onarpen-prozedurari buruzko jarraibideak onartzen dira, eta agindu honen I. eranskinean jasotzen.

5. artikulua.– Ikasleak onartzeko prozedura hau izapidetzean jasotzen diren datu pertsonalak «Ikasleak onartzea» izeneko fitxategi batean sartuko dira, prozedura hau kudeatzeko eta prozesu horren garapenaren berri emateko, beti ere lege hauek diotena beteta: abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Datu Pertsonalen Babestekoa, eta otsailaren 25eko 2/2004 Legea, Titulartasun Publikoko Datu Pertsonalen Fitxategiei eta Datuak babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzkoa.

Fitxategi horren arduraduna Ikastetxeen Zuzendaritza da. Datuetara sartzeko, datuak zuzentzeko, ezerezteko eta horien aurka egiteko eskubideez baliatzeko, Ikastetxeen Zuzendaritzara jo beharko da, honako helbide honetara: Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz.

Era berean, eskatzaileek baimena ematen diote Ikastetxeen Zuzendaritzari beste herri-erakunde batzuetan egiazta dezan aurkeztutako agiriak benetakoak direla.

## AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean agindu hau.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko urtarrilaren 15a.

Hezkuntzako sailburua,  
CRISTINA URIARTE TOLEDO.

## I. ERANSKINA

## JARRAIBIDEAK, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HAUR-HEZKUNTZA, LEHEN HEZKUNTZA ETA DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASTETXE PUBLIKO ETA ITUNPEKO IKASTETXEETAN 2018-2019 IKASTURTEAN IKASLEAK ONARTZEKO PROZEDURARI BURUZKOAK

Lehenengoa.– Aplikatu beharreko araudia.

Arau hauek bete beharko dira ikasleak 2018-2019 ikasturtean onartzeko Hezkuntza Sailaren mendeko ikastetxe publikoetako eta itunpeko ikastetxeetako Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etapetan: batetik, 35/2008 Dekretua, martxoaren 4koa, eta, bestetik, Hezkuntzako sailburuaren Agindua (2018-2019 ikasturtean Hezkuntza-etapa horietan ikasteko eskaerak aurkezteko egutegi eta onarpen-epe komunak ezarri eta jarraibide hauek onartzen dituen Agindua). Era berean ezarriko da Hezkuntza sailaren menpeko ikastetxe publikoetako 2 urtekoen geletan eta Hezkuntza saileko diru-laguntzak jaso nahi dituzten ikastetxe itunduetan, xxxxxxxxaren xx(e)ko xx/xxxx Dekretuaren Lehenengo Xedapen Gehigarriak dioenaren arabera.

Bigarrena.– Ikasleak Onartzen direla Bermatzeko Batzordeak.

1.– Ikasleak Onartzen direla Bermatzeko egun diren lurralde-batzordeek beren egitekoak betetzen jarraituko dute irailaren 7ra arte; izan ere, egun horretan berrituko dira. Hezkuntzako lurralde-ordezkariek beharrezkotzat joz gero, ikasleak onartzen direla bermatzeko beste batzorde batzuk eratu ahal izango dira, maila eta/edo esparru geografiko zehatz batean. Hori erabakiz gero, ikasleak onartzen direla bermatzeko lurralde-batzordeek dagokion batzordearen esku utziko dituzte geografia-eremu eta/edo -maila horietako funtzioak.

2.– Aurreko atalean zehaztutako Berme Batzorde guztiak honela osatuko dira:

a) Hezkuntza Administrazioiko bi ordezkarik; horietako bat batzordeko burua izango da eta beste idazkaria.

b) Etapa edo etapetako ikastetxe publikoetako zuzendari bat, zozketaz hautatua.

c) Etapa edo etapetako ikastetxe itunduetako zuzendari bat, zozketaz hautatua.

d) Batzordeari dagokion esparru geografikoko udalen ordezkarik bat.

e) Lau guraso, bi herri-ikaslekoak eta beste bi itunpeko ikastetxeetakoak, dagokion etapa edo etapetakoak. Dagokion lurraldean edo etapan ordezkaritza handiena duen Guraso Elkartearen Federazioek proposatuko dituzte guraso horien izenak. Ordezkatuta izateko eskubidea duten sektoretakoren batean Guraso Elkartearen Federaziorik ez balego, zozketa-bidez hautatutako bi ikastetxetako Eskola Kontseiluko bi guraso izendatuko dute hango gurasoek.

f) Lau irakasle, bi herri-ikaslekoak eta beste bi itunpeko ikastetxeetakoak, dagokion etapa edo etapetakoak. Dagokion lurraldean edo mailan ordezkaritza handiena duten irakasleen ordezkaritzako sindikatuek proposatuko dituzte haien izenak.

3.– Onartze-prozesuko berme-batzordeek honako funtzio hauek izango dituzte:

a) Ikasleen onartze-prozesua ikuskatzea, dagokion esparru geografikoko ikastetxe publiko eta pribatu itunduetan, eta araudia betetzen dela bermatzea, hezkuntzako ikuskaritzaren egitekoak eta eskumenak errespetatuz.

b) Hezkuntzako lurralde-ordezkariei aholkuak ematea ikastetxeen eragin-eremuak eta eremu mugakideak zehazteko lanetan.

c) Hezkuntzako lurralde-ordezkariei aholkuak ematea, ikasleren batek eskaera bat baino gehiago egiten badu eta eskatzaileek aurkeztutako agiriak faltsuak direla frogatzen bada, ikasle horien eskolatzeari buruzko erabakiak hartzeko.

4.– Ikasleak Onartzea Bermatzeko Batzordeak eratzeko, hezkuntzako lurralde-ordezkariek eskatuko die lurralde eta etapa bakoitzean ordezkariak handiena duten udal-elkarteei, gurasoen elkarteei eta irakasleen sindikatuei beren ordezkariak izenda ditzatela batzorde horretarako. Organizazio horiek hamar eguneko epean jakinarazi beharko dituzte beren ordezkarien izenak. Hala egingo ez balute, Batzordeak balio osoz eratuko dira, izendatu gabe geratu diren ordezkarien parte hartzerik gabe.

5.– Hezkuntzako lurralde-ordezkariek, halaber, Hezkuntza Administrazioak Onarpena Bermatzeko Batzordeetan izango dituen ordezkariak izendatuko dituzte, eta zozketa publikoak egingo dituzte batzorde horietako kide izango diren herri-ikastetxeetako eta itunpekoetako zuzendariak hautatzeko. Denbora nahikoaz jakinaraziko zaie ikastetxe guztiei zozketa horiek noiz eta non egingo diren.

Hirugarrena.– Eragin-eremuak.

1.– Ikastetxeen eragin-eremuak eta eremu mugakideak zehaztuko dituzte hezkuntzako lurralde-ordezkariek; hala, bizileku guztiak sartuko dira gutxienez ikastetxeren baten eragin-eremuan. Mugapen hori egiteko, Onarpena Bermatzeko Batzordeek aztertu beharko dute gaia lehendabizi, eta eragindako ikastetxeei eta udalei entzun beharko zaie; horrez gain, kontuan izan beharko da ikastetxe bakoitzak baimenduta duen edukiera eta haren ingurunean eskolatzeko adinean dagoen biztanleria.

2.– Ikastetxean irakatsitako etapa eta hizkuntza-eredu bakoitzerako zehaztuko dira eragin-eremuak eta eremu mugakideak. Eragin-eremuen mapak edota xehetasunak jendeak eskuratzeko moduan jarriko dira Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzetan.

3.– Hezkuntzako lurralde-ordezkariek laguntza eska diezaiekete toki-korporazioei jarraibide honetan xedatutakoa betetzeko, eta toki-korporazio horientzat derrigorrezkoa izango da laguntza hori ematea.

4.– Lurralde historiko baten lurralde-eremua gainditzen duten eragin-eremuak finka ditzake Hezkuntzako sailburuordeak, baldin eta hori egitea komeni bada, ikastetxeren batean ematen diren ikasketa bereziei edo eman daitezkeen salbuespenezko egoerei erreparatuta.

Laugarrena.– Ikasleentzako plazak zehaztea.

Hezkuntzako lurralde-ordezkariek Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza irakasten duten herri-ikastetxeei eta itunpeko ikastetxe pribatuei jakinaraziko diete zenbat talde izan ditzaketen ikasturte eta hizkuntza-eredu bakoitzean, bai eta zenbat ikasle matrikulatu ditzaketen, gehienez ere, horietako bakoitzean.

Bosgarrena.– Plazak gordetzea.

1.– Hezkuntza-prozesuan berariazko laguntza behar duten ikasleak ikastetxe publiko eta pribatu itunduetan modu orekatuan banatu eta ikasle horiek hezkuntza-sisteman txertatzeko baldintza egokiak sortzeko, hezkuntzako lurralde-ordezkariek xedatu ahal izango dituzte zenbat plaza gorde beharko diren ikasle horiek eskolatzeko Hezkuntza Sailaren mendeko ikastetxe publikoetan eta

ikastetxe pribatu itunduetan. Ikastetxeek, berriz, izen-emateen eta matrikulazioen epea amaitu arte gorde beharko dituzte plaza horiek.

2.– Hezkuntzako lurralde-ordezkariek eskaerak egiteko epea hasi baino lehen jakinaraziko dizkiete erabaki horiek ikastetxeei.

Seigarrena.– Atxikitako ikastetxeetan onartuak izateko lehentasuna.

1.– Haur Hezkuntzako lehen zikloa bakarrik ematen duten eta ikasleak xxxxxxxxaren xx(e)ko xx/xxxx Dekretuaren arabera onartzen dituzten itunpeko ikastetxe pribatuetakoa ikasleek lehentasuna izango dute beren ikastetxea atxikita dagoen Haur Hezkuntzako bigarren zikloko ikastetxean edo ikastetxeetan sartzeko, eta bermatuta izango dute ikastetxe horretarako sarbidea, baldin eta plaza nahikoa badago (xx/xxxx Dekretua, xxxxxxxxaren xx(e)koa, Euskal Autonomia Erkidegoan hezkuntzaren eskumena duen sailaren agindupeko herri-ikastetxeetan eta Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza, Batxilergo eta erdi-mailako eta goi-mailako Lanbide Heziketako itunpeko ikastetxe pribatuetakoa ikasleak onartzea nahiz ikasturtea hasi eta gero ikasleak eskolatzeara arautzekoa)..

2.– Haur Hezkuntzako ikastetxeetako ikasleek lehentasuna izango dute beren ikastetxea atxikirik dagoen Lehen Hezkuntzako ikastetxera edo ikastetxeetara joateko, eta bermatuta izango dute onarpena, baldin eta haietan nahikoa eskola-plazarik bada.

3.– Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako ikasleek lehentasuna izango dute beren ikastetxea atxikirik dagoen Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxera edo ikastetxeetara joateko, eta bermatuta izango dute onarpena, baldin eta haietan nahikoa eskola-plazarik bada.

4.– Musika eta Dantzako ikasketak arautuak eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasketak batera ikasten dituzten ikasleek lehentasuna izango dute onartuak izateko Hezkuntza Sailak zehaztutako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan; gainera, bermatuta izango dute horietara joateko aukera, baldin eta horietan nahikoa plazarik bada. Berdin jokatuko da errendimendu handiko kirol-programak egiten dituzten ikasleekin. Atal honetan jasotako ikasleek lehentasun-eskubideaz baliatzeko, ikasleentzat 2. atalean jasotzen diren eskubideak bete behar dira.

5.– Lehentasun-eskubide horiek erabiltzeko, ezinbestekoa izango da ikasleek berriaz adieraztea beren eskaeretan atxikitako ikastetxean onartuak izatea dela haien lehenengo aukera.

6.– Aurreko ataletan jasotako ikasleek ez dute baremoko atalei buruzko dokumentaziorik aurkeztu beharko. Derrigorrean barematu behar denean, eskatuko diete ikastetxeek dokumentazio hori aurkezteko.

Zazpigarrena.– Onartze-prozesuari buruzko informazioa.

Onarpen-eskaerak aurkezteko epea hasi baino lehen, herri-ikastetxeek eta itunpekoek informazio hau jarriko dute iragarki-tauletan eta, halaber, guraso eta tutoreei emango diete, hala eskatzen badute:

- a) Ikasleak ikastetxe publiko eta pribatu itunduetan onartzeko araudia.
- b) Ikastetxearen eragin-eremua eta eremu horren mugak.
- c) Eskabideak egiteko epea.

d) Prozesuaren egutegia, eta, horren baitan, besteak beste, onartuta eta baztertutako ikasleen zerrendak argitaratzeko egunak eta erreklamazioak jartzeko epeak eta eskabideari uko egiteko epea.

e) Eskola Kontseiluak edo Ordezkaritza Organo Gorenak emandako puntuak zehazteko irizpideak iragarki-taulan jarriko dira, eta jarri ere Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzak eskabideak aurkezteko epea hasi baino lehenago irizpide hauek jakinarazteko bidaltzen duen idazkiaren kopia jarriko da.

f) Eskabideak aurkezteko epean ikastetxeko idazkaritzak jendeari erantzuteko duen egutegia eta ordutegia.

Zortzigarrena.– Eskatzaileak eta eskabideak egiteko erak.

1.– Eskaera aitak, amak edo ikaslearen legezko tutoreak aurkeztu behar du.

2.– Eskabidea bi bide hauetakoren bat erabiliz bete beharko da:

– On-line, Hezkuntza Sailak horretarako prestatzen duen aplikazio informatikoaren bidez

– Lehen aukera moduan hautatutako ikastetxeko idazkaritzan. Bertan sartuko dira aplikazio informatikoan eskatzaileek eskabidean jarritako datuak.

2.1.– On-line eskabidea

– On-line eskabidea otsailaren 8ko 24:00ak arte egin ahal izango da, orduan utziko baitio aplikazioak aktibo egoteari.

– Eskabidearekin batera, eskatutako dokumentuak aurkeztuko dira, eskaneatuta.

– Eskabidea bete ondoren, sartutako datuak eta dokumentuak berrestea edo konfirmatzea eskatuko du programak. Ondoren, alta emango dio eskabideari, eta frogagiri bat emango du, eskabidean jasotako datu guztiekin.

– Behin eskabideari alta emanda, eta hautatutako zentroak eskabidea hartu arte, eskatzaileek aukera izango dute grabatutako datuak aldatu edo zuzentzeko, aplikazio berberaren bitartez. Gero ere eskatu ahal izango dute aldaketak egitea, otsailaren 9ra arte —egun hori barne—, lehenengo eskatu duten zentrori bertara joanda.

2.2.– Eskabidea zentroan bertan egitea

– Eskatzailea lehenengo eskatutako zentrori joango da, idazkaritza-orduetan, otsailaren 9ra arte —egun hori barne—, eta aurkeztu nahi duen dokumentazioa eramango du.

– Eskabideko datuak aplikazioan kargatu eta dokumentazioa egiaztatu eta gero, eskatzaileari datu-orri bat erakutsiko dio ikastetxeak; bertan jasoko dira: datu pertsonalak, egindako eskaerak, barematzeko alegatutako egoerak eta aurkeztutako agirien zerrenda.

– Eskatzaileak datuok aztertu, eta zuzentzat jotzen baditu, datu-orria sinatuko du. Ikastetxeak zigilua jarriko du datu-orri sinatuan eta aurretiaz sartu dituen datuak baliozkotzat joko ditu. Datu orri hori eskaeren frogagiritzat eta egiaztagiriritzat erabiliko da, sinatuta eta zigilua jarrita duenean.

– Eskatzaileek otsailaren 9ra arte izango dute, egun hori barne, grabatutako datuen bat aldatzeko edo zuzentzeko eskatzeko. Eskabidea zein ikastetxetan entregatu, ikastetxe horrek egin beharko ditu aldaketak. Data horretatik aurrera ez da zuzenketa onartuko

– Ezer aldatzeko, eskatzaileak nahitaez aurkeztu beharko du laugarren atalean aipatutako jatorrizko eskabide orri sinatu eta zigilatua. Egin beharreko zuzenketak egin eta gero, beste datu-orri bat emango zaio, sinatuta eta zigilatuta; gero, zaharra apurtu, eta azkenean ikastetxeak datu berriak baliozkotu egingo ditu.

Bederatzigarrena.– Tramitazioa.

1.– Inskripzio-eskabide bakarra aurkeztuko da, eta ikastetxe bitan edo gehiagotan eskabidea aurkeztuz gero, ikastetxea aukeratzeko eskubidea galduko da. Nolanahi ere, interesdunak entzualdiko izapidea izango du, nahitaezkoa baita. Ondorioa, bikoiztutako eskabideak azkenengoz izapidetuko dira, epe barruan aurkeztutako gainerako eskabideei plazak esleitu eta gero.

2.– Epetik kanpo ez da eskabiderik onartuko. Epe barruan egindako matrikula-eskabide guztiak onartu eta izapidetu beharko dituzte ikastetxeek, eskola-posturik egon edo egon ez eskatutako maila eta hizkuntza-eredu guztietarako, eta gero barematu egin beharko dituzte.

3.– Haur Hezkuntzako maila bat egin nahi duten ikasleek ikasturtea hasi den urtean duten adinari dagokion maila eskatu beharko dute. Ikasle eskatzailea Haur Hezkuntzako bigarren zikloko hirugarren maila edo Lehen Hezkuntzako edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako maila bat egiten ari bada, une horretan egiten ari dena baino maila bat gorago onartzeko eskatu behar du. Azken kasu horretan sartzen diren eta Euskal Autonomia Erkidegoa ez den beste leku batetik datozen ikasleek egindako ikasketen ziurtagiria aurkeztu behar dute, argi eta garbi adieraziz zer maila egiten ari diren une horretan

4.– Gehienez ere 3 ikastetxe aukeratu ahal izango dira eta, hiruretan, lehentasun-ordenaren arabera aukeratuko dira hizkuntza-ereduak, kontuan hartu gabe eredu horiek ikastetxean ematen diren ala ez.

5.– Lehenengo aukera moduan ikastetxeak eskaintzen ez duen hizkuntza-eredu bat eskatzen denean, Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzak aztertu egingo du maila eta eredu horretan taldea eratzeko aukerarik dagoen ala ez ikastetxean bertan edo zonaldean; horretarako, nahikoa eskaera izan behar dira eta plangintzak horretarako bidea eman behar du. Edonola ere, kasu horretan, ikasleak onartzeko prozesuan parte hartuko du, baina ikastetxeak gainerako ereduetao plazak esleitzeko duen prozesuan.

6.– Era berean, lurralde-ordezkaritzak ikastetxeak ematen ez dituen ikasketa-ereduen eskabide guztiak kudeatzeko ardura izango du. Horretarako, halako eskabideak erregistratzen dituzten ikastetxeek eskabide bakoitzari dagokion puntuazio-baremoa zainpean utziko du aplikazio informatikoan, eta eskabideari erantzen zaion dokumentazioa bidaliko dute Lurralde Ordezkaritzara.

7.– Eskabidearekin batera, ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko da, nahitaez:

– Familia-liburuaren orriaren fotokopiak, ikaslearen eta bere gurasoen datuak jasotzen dituenak.

– Familia-liburuaren fotokopia, eskabidea egiten duen lagunarena: aitarena edo amarena, edo egiaztagiri bat, pertsona hori ikaslearen legezko tutorea dela dioena.

– Eskabidea egiten duen lagunaren NAN edo AITen fotokopia: aitarena, amarena edo legezko tutorearena.

– Ziurtagiri bat, familiaren egoitzarena (ikaslearena eta aita, ama edo tutorearena). Ziurtagiriak hiru hilabeteko antzintasuna izango du, gehienez ere.

– EAetik kanpo eskolatutako ikasleen kasuan, egindako ikasketen ziurtagiria, argi eta garbi adieraziz zer maila egiten ari diren une horretan.

Era berean, barematzean puntuak lortzeko behar diren baldintzak betetzen direla dioten egiaztagiriak aurkeztu beharko dira.

Dokumentazio guztia aurkeztu beharko da epearen barruan: eskabidea zentroan aurkeztu nahi bada, lehenengo eskatutako zentroan aurkeztu beharko da; on-line eskabidea egin nahi izanez gero (izapidetze elektronikoa), aplikazioaren bitartez aurkeztu beharko da. Eskabideak onartzeko epea amaitu ondoren, ez da beste agiririk onartuko. Puntuak ematen dituen agiriren bat aurkezten ez bada, atal edo azpiatal horretan zero puntu lortuko dira; dena den, horrek ez du eskabidea ezeztatzen, ezta beste ataletako edo azpiataletako puntuak ere.

Hezkuntza Administrazioak noiznahi egiaztatu ahal izango du ekarri zaizkion dokumentuen benetakotasuna.

8.– Ekainaren 23ko 118/1998 Dekretuko 7. artikulua arautzen du nola matrikulatu hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak. Premia horiek dituzten lagunek ikastetxeari jakinarazi beharko diote bere egoera eskabidea egiten dutenean, ondorioak izan ditzan plazak gordetzeko eta behar dituzten laguntza emateko orduan.

9.– xxxxxxaren xx(e)ko xx/xxxx Dekretuaren 25. artikuluan arautzen da nola onartu ikasleak Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxek publikoetan eta itunpeko ikastetxe pribatuetan. Dekretu horren 21. artikulua, berriz, ausazko prozedura egitea ezartzen du puntuak barematzean gerta daitezkeen berdinketak hausteko azken irizpide moduan, eta beti ere hezkuntza-arloko eskumena duen sailak ezarritako moduan egingo prozedura hori.

Eskabideko datuak balidatzeko unean, aplikazio informatikoak hurrenkera-zenbaki bat esleituko dio eskabideari, erabateko ausazkotasunez esleitu ere: 1 eta 999999ren arteko zenbaki oso bat, alegia. Zenbaki hori erabiliko da egon litezkeen berdinketak hausteko; betiere, berdinketa hausteko gainerako irizpide guztiak aplikatuta ere berdinketak bere horretan badirau. Kasu horretan, aplikazio informatikoak eskabide guztiak txikienetik nagusienera ordenatu, eta txikienari emango dio lehentasuna.

Familia berekoak ikastetxe berera joan ahal izatea ez oztopatzeko, bi anai-arreba hezkuntza-maila berean daudenean eta baremo-puntuazio berdina dutenean, ausazko prozeduran emaitza okerragoa lortu duen anai-arreba emaitza hobea atera duenaren ondoan jarriko da zerrendan, hurrengo postuan.

Eskabideko datuak aldatuta ere, inoiz ez da aldatuko hurrenkera-zenbaki hori, hots, eskabidea lehenengo aldiz egin zenean ausaz esleitu zitzaiona.

10.– Otsailaren 20an ikastetxeek eskatzaile-zerrendak argitaratuko dituzte iragarki-taulan, eta-paka, mailaka eta hizkuntza-ereduka.

11.– Martxoaren 14ra arte eskabideari uko egin ahal izango zaio. Uko egiteko idazkia idatziz gero, eskabidea aurkeztu zen ikastetxe berean aurkeztu beharko da, eta eskatutako aukera guztiei eragingo die. Ikastetxeak idazki hori artxibatuko du, bere egunean aurkeztutako eskabidearekin batera.

Hamargarrena.– Baremazioa.

Eskabideak tokiak beste edo gutxiago badira, ez da eskabiderik barematu beharko eta den-denak onartuko dira.



Maila eta hizkuntza-ereduren batean eskainitako plazak baino eskaera gehiago egiten badira, herri-ikastetxeetako Ordezkaritza Organo Gorenak edo itunpeko ikastetxeetako organo titularrak eskaerak barematuko ditu, ikastetxeko Eskola Kontseiluaren ikuskaritzapean, eta horretarako, xxxxxxaren xx(e)ko xx/xxxx Dekretuko eta Jarraibide hauetako baremoa eta aplikazio-neurriak beteko dituzte. Baremoko atal eta azpiatal guztiak barematu behar dira eskaera guztietan. Eskae-rak barematzeko, kontuan hartu beharko dira irizpide hauek:

a) Lehenengo eta behin, ikastetxeari atxikitako ikastetxeetako ikasleek onartzeko egindako eskaerak sailkatuko dira lehen multzo batean, eta gainerako eskaerak bigarren multzo batean. Lehenengo taldeko eskaerek beti izango dute lehentasuna bigarren taldeko eskaeren parean. Bi multzo horietan, guztira lortutako puntuazioaren arabera sailkatuko dira eskaerak, eta, berdinketarik balego xxxxxxaren xx(e)ko xx/xxxx Dekretuak eta Jarraibide hauek zehaztutako irizpideei jarraituko zaie berdinketa horiek erabakitzeko.

b) Hizkuntza-eredu bat baino gehiago eskatzen duen eskaerarik balego, zerrenda bakarrean ordenatuko dira izaera horretako eskaerak, puntuazioaren arabera. Zerrendako ordenari eta eskaeretan lehenetsitako erduei jarraituz esleituko dira plazak.

Hamaikagarrena.– Familia-unitateen urteko errentei eta seme-alaben kopuruak duen eraginari buruzko baremo-atala aplikatzeko arauak.

1.– Ikasleak onartzeko Dekretuko eranskinean adierazitako puntuak lortzeko behar diren diru-sarrerak konputagarriak izango dira familia-unitateko kide guztiek 2016ko zerga-ekitaldian izandako zerga-oinarri orokorrari eta aurrezkiaren zerga-oinarriari dagozkionak. Baremoko atal honetan punturik lortzeko, zerga-oinarriak ez du 9.172,80 euroko muga gainditu beharko. 2016ko lanbide arteko gutxieneko soldatari dagokio kopuru hori. Ondorioz, puntu horiek lortu nahi izanez gero, eskatzaileek baimena eman beharko diote Hezkuntza Administrazioari datu horiek Foru Ogasunean egiazta ditzan.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoan bizi ez diren eskatzaileen kasuan, familia-unitatearen diru-sarrerak puntuatzeko eskubidea izateko, familia-unitateko kide guztiek aurkeztu beharko dute 2016ko errenta-aitorpenaren kopia edo, behar izanez gero, baterako aitorpena. Indarrean dagoen zerga-araudia dela eta, urte horretan familiako kideren batek errenta-aitorpena egin ez badu, Ogasunaren ziurtagiria aurkeztu beharko du adierazteko ez duela errenta-aitorpena egin.

3.– Jarraibide honen aurreko ataletan ezarritakoaren ondorioetarako, familia-unitatetzat hartuko da pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga arautzen duten kasuan-kasuko foru-arauetan ezarritakoa. Horretaz gainera, familia-unitatetzat hartuko da onarpen-eskaeraren helburu den adingabea, familia-liburuan ageri diren gurasoekin batera, non eta ez den egiaztatzen, hitzarmen arautzaile bidez, adingabearen zaintzaren gaineko arduraren banatuta dagoela. Gehigarri modura, familia-unitatetzat hartuko da onartzeko eskaera egiten duen adingabea eta familia-liburuan azaltzen diren gurasoak, baldin eta hitzarmen arauemailearen bidez egiaztatzen bada, adingabearen jagoletzaren erantzukizun banandu bat dagoela.

Ezkontzak desegiten badira, ezkontideak banantzen edo dibortziatzen edo izatezko bikoteen bizikidetzak eteten bada, erabaki judizial irmoz edo hitzarmen arautzaile baten bidez, baremoa aplikatuko zaie ikaslearen zaintza duen pertsonaren errentei. Berdin jokatuko da tutoretza judiziala, familia-harrera edo antzeko babes-neurriak aplikatu behar badira eta adingabeko ikaslearen zaintza ez badago gurasoen esku. Ikaslearen zaintza herri-administrazioaren baten esku balego, puntuazio handiena emango da atal honetan.

4.– Familia-liburuaren kopien bidez egiaztatuko da neba-arreben kopurua, eta, horien artean, adingabeak soilik konputatuko dira.

Hamabigarrena.– Familiaren bizilekuaren edo aita, ama edo tutoreen lantokiaren gertutasunari buruzko baremo-atala aplikatzeko arauak.

1.– Atal horretako puntuak bere lau azpiataletakoren batean emango dira, soil-soilik. Puntuak lortzeko, azpiatal horietakoren bat aukeratu beharko dute eskatzaileek.

2.– Ikaslea aitarekin, amarekin edo lege-tutorearekin bizi den lekua izango da familiaren bizilekua. Familia-bizilekua egiaztatzeko, ikaslea aitarekin, amarekin edo lege-tutorearekin bizi dela egiaztatzen duen errolda-ziurtagiria aurkeztu beharko da.

Familia-liburuaren fotokopiak aurkeztuta egiaztatuko da nor den aita edo ama. Ikaslearen legeko tutorearen izaera egiaztatzeko, berriz, sententziaren kopia edo dagokion ziurtagiri ofiziala aurkeztu beharko da.

Bizilekuaren gertutasunari dagozkion puntuak errolda-ziurtagirian ageri den bizilekuari esleituko zaizkio, betiere hezkuntza-administrazioak ebatzen ez badu -jarraian adieraziko dena aplikatuta- puntu horiek ez direla eman behar.

Errolda-ziurtagiriak, aurkako frogarik ezean, bizilekuaren presuntzio balioa du. Badira froga-elementuak presuntzio hori hutsaldu dezaketenak, hala nola ur-, elektrizitate-, gas- edo telefono-horniduren titulartasuna eta kontsumoak, erroldaren datu historikoak, elkarrekin bizi diren pertsonak, dokumentu fiskalak, adierazitako bizilekua jasotzen duten banketxeetako edo zerbitzu-hornitzaileen dokumentuak, beste etxebizitza batzuk jabetzan izatea eta erabiltzea, eta egiazko bizilekua eta errolda-ziurtagirian adierazitakoa bat ez datozela ondorioztatzen eraman diezaguketan bestelako dokumentu publiko edo pribatuak.

Ikastetxe eta maila jakin batean sartzeko onarpen-prozesuan parte hartzen duen pertsona batek hezkuntza-administrazioari erreklamazio bat aurkeztu badiu ikastetxe eta maila horretara sartzeko prozesuko parte-hartzaile bati bizilekuaren hurbiltasunaren atalean emandako puntuazioaren aurka, pertsona horri atal horretan behar baino puntu gehiago ematearen zantzuak edo arrazoiak zein diren adieraziz, hezkuntza-administrazioak zalantzan jarria izan den puntuazioa duen eskatzaile horri eskatuko dio dokumentuak edo froga-elementu osagarriak aurkezteko, helbidea egiaztatze aldera.

Eskakizuna jaso duen pertsonak ez badu aurkeztu dokumentazio edo froga-elementu osagarri horretarako emandako epean, hau da, eskatzailearen frogatze-jarduera osagarri ez badago, nahikoa arrazoi izango da aipatutako puntuak ez esleitzeko, betiere eskakizunaren jakinarazpena jasota geratu bada espedientean. Horrelako egoeretan, edo aurkeztutako dokumentuak ez badira nahikoak froga modura, hezkuntza-administrazioak berariazko ebazpena emango du bizilekuaren gertutasunari dagozkion puntuak ezin direla esleitu adierazteko.

Ebazpen horrek zein zio konkretutan oinarritzen den adieraziko du eta gora jotzeko errekurtsioa jarri ahal izango zaio.

3.– Aitaren, amaren edo lege-tutorearen lantokia eskatutako ikastetxearen eragin-eremuan badago, alderdi hori baloratzeko eskatu daiteke eskaeran, bizilekuaren gertutasunekoaren orde.

Aukera horretaz baliatuz gero, besteren konturako langileen kasuan, lantokia ikastetxearen eragin-eremuan dagoela egiaztatzeko, ikaslearen aitak, amak edo lege-tutoreak lan egiten duen enpresaren jabeak edo enpresako langile-arduradunak ziurtagiri bat eman beharko du berariaz.

Norberaren kontura lan eginez gero, jarduera ekonomikoen gaineko zergaren alta-ziurtagiriak egiaztatuko du lantokia. Indarrean den legediak ez badu behartzen Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda izatera, irekiera-lizentziaren fotokopia konpultsatua aurkeztu beharko da, dagokion udalak emana.

4.– Ikaslearen zaintza guraso bakarraren esku badago, lantokia ikastetxearen eragin-eremuan izateari dagozkion puntuak emateko, ikaslearen aita edo amatzat joko da, baita ere, zaintza duen gurasoaren bikotekidea, izaera hori legez aitortua badu.

Ikaslearen zaintza duen gurasoaren bikotekidea dela egiaztatzeko, zaintza dagokion gurasoari ematen dion sententziaren kopia aurkeztu beharko da, bai eta familia-liburuaren kopia ere, hura beste pertsona batekin ezkondu dela egiaztatzen duena, edo, bestela, izatezko bikote direla egiaztatzen duen ziurtagiri ofiziala.

5.– Ez da inoiz ere baloratuko ikaslearen aitaren, amaren edo lege-tutorearen lantokia eskutatuko ikastetxearen eremu mugakideren batean izatea.

6.– Ikastetxea aitaren, amaren edo lege-tutorearen lantokitik gertu izateagatik ematen den puntuazioa bateraezina da bai bizilekuaren gertutasunagatik ematen den puntuazioarekin, bai ikaslearen aita, ama edo lege-tutorea eskutatuko ikastetxean lan egiteagatik ematen denarekin.

7.– Eragin-eremuaren kontzeptu horietako bakar bategatik ere punturik lortu ez dutenek, baldin eta ikastetxea kokatuta dagoen udalerrian bizi badira, atal honetan puntu bat lortzeko eskubidea izango dute.

Hamahirugarrena.– Eskutatuko ikastetxean ikasten edo lan egiten duten senideei buruzko baremo-atala aplikatzeko arauak.

1.– Atal honetako puntuazioa bertan jasotzen diren bi egoeretako batengatik emango da; hau da, bederatzi puntu eskatzaileak neba edo arreba bat edo gehiago dituelako matrikulatuta eskutatuko ikastetxean edo ikastetxe horri atxikitako ikastetxe batean eta 7 puntu aitak, amak edo legezko tutoreak lan egiten duelako eskutatuko ikastetxe horretan. Bi egoerak gertatuz gero, bakar-rarengatik soilik emango da puntuazioa; beraz, ezingo dira atal horretan 9 puntu baino gehiago eskuratu. Atal honetako puntuazioa jaso ahal izateko, kontuan hartuko da bakar-bakarrik Hezkuntza Sailak araututako ikasleak onartzeko prozedurari jarraituz, mailaren batean neba-arrebak matrikulatuta izatea.

2.– Ataleko puntuazioa emateko, 2017-2018 ikasturtean jazo behar dute gertaera horiek.

3.– Anaia-arreba, aita edo ama direla egiaztatzeko, familia-liburuaren kopia aurkeztuko da. Ikaslearen legezko tutorearen izaera, berriz, sententziaren kopia edo dagokion ziurtagiri ofiziala aurkeztuz egiaztatuko da.

4.– Atal honi dagokion puntuazioa ematean, anaia-arrebatzat hartuko dira familia-unitatean legezko tutoretza-egoeran edota behin betiko nahiz adopzio aurreko familia-harreraren egoeran dauden adingabeak.

5.– Era berean, ikaslearen zaintza guraso bakar baten esku badago, ikaslearen aita edo amatzat joko da, era berean, zaintza duen gurasoaren bikotekidea, izaera hori legez aitortua badu. Pertsona horren seme-alabak ere anaia-arrebatzat joko dira ikaslearekin batera bizi badira. Egoera hori dagokion errolda-agiriaren bidez egiaztatuko da.

6.– Ikaslearen zaintza duen gurasoaren bikotekidea dela ziurtatzeko, guraso horri zaintza ematen dion epaiaren kopia aurkeztu behar da, eta biak elkarrekin ezkondu daudela egiaztatzen

duen familia-liburua edota izatezko bikote direla adierazten duen ziurtagiri ofiziala ere aurkeztu behar da.

Hamalagarrena.– Ikaslearen edota haren aitaren, amaren, legezko tutorearen edo anaia-arreba baten minusbaliotasuna barematzeko arauak.

1.– Minusbaliatua ikaslea bera bada, bi puntu emango zaizkio, eta aurretik aipatutako familiar-teko bat bada, berriz, puntu bat.

2.– Ataleko puntuazioa emateko, % 33ko edo handiagoko minusbaliotasuna izan behar da. Atal honetan puntuak lortzeko eskubidea ematen duen minusbaliotasuna bi pertsona edo gehiagok badute ere, pertsona bakarragatik emango dira puntuak; beraz, ezingo dira 2 puntu baino gehiago eskuratu minusbaliatua ikaslea bada edo puntu bat baino gehiago minusbaliotasuna duena aurrez adierazitako senideren bat bada.

3.– Lurralde historikoko foru-aldundiko gizartekintzako departamentuak edo Estatuko organo baliokide eskudunak emandako ziurtagiri bidez egiaztatuko da minusbaliotasuna. Minusbaliatuak % 33ko edo handiagoko minusbaliotasuna izatearen lege-aitorpena jaso beharko du agiri horrek.

4.– Anaia-arreba, aita edo ama dela egiaztatzeko, familia-liburuaren kopia aurkeztuko da. Ikaslearen legezko tutorearen izaera egiaztatzeko, berriz, sententziaren kopia edo dagokion ziurtagiri ofiziala aurkeztu beharko da.

5.– Atal honi dagokion puntuazioa ematean, anaia-arrebatzat joko dira familia-unitatean legezko tutoretza-egoeran edota behin betiko nahiz adopzio aurreko familia-harreraren egoeran dauden adingabeak.

6.– Halaber, atal honetan ematen den puntuazioa zenbatzean, ikaslearen zaintza guraso bakar baten gain badago, guraso horren legezko bikotekidea ere ikaslearen aitatzat edo amatzat joko da. Pertsona horren seme-alabak ere anaia-arrebatzat joko dira ikaslearekin batera bizi badira. Egoera hori dagokion errolda-agiriaren bidez egiaztatuko da.

7.– Ikaslearen zaintza duen gurasoaren bikotekide-izaera egiaztatzeko, zaintza dagokion gurasoari ematen dion sententziaren kopia aurkeztu beharko da, bai eta familia-liburuaren kopia ere, hura beste pertsona batekin ezkondu dela egiaztatzen duena, edo, bestela, izatezko bikotea direla egiaztatzen duen ziurtagiri ofiziala.

Hamabosgarrena.– Familia ugaria barematzeko arauak.

Familia ugaria dela egiaztatzeko, estatuko edozein autonomia-erkidegok emandako agiri ofiziala aurkeztu behar da.

Hamaseigarrena.– Ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenak edo Eskola Kontseiluak askatasunez erabakitako beste alderdi batzuei buruzko baremo-atala aplikatzeko arauak.

1.– Herri-ikastetxeetako Ordezkaritza Organo Gorenek eta itunpeko ikastetxeetako Eskola Kontseiluek aukera izango dute, hala nahi izanez gero, irizpide bat edo batzuk ezartzeko, eskatzaileei puntu gehiago emateko. Puntuazio gehigarri hori, gehienez, bi puntukoa izango da.

2.– Irizpide objektiboak ezarri beharko dira puntuazio gehigarri hori emateko. Ikastetxeko organo eskudunak onartuko ditu irizpide horiek, eta haien berri emango da eskabideak aurkezteko epea hasi aurretik.

Era berean, ikastetxe bakoitzak dokumentu bat sartu beharko du aplikazio informatikoan urtarrilaren 26a arte lehen. Dokumentu horretan zehaztuko ditu puntuazioa emateko irizpideak. Hala,

eskabidea bide telematikotik egiten dutenek informazio hori eduki ahal izango dute eskura. Dokumentu horren beraren kopia erakutsiko da zentroko iragarki-oholean.

3.– Puntuak arrazoi bakar bategatik edota hainbat arrazoirengatik eman daitezke. Kontzeptu bat baino gehiagorengatik ematen bada, horien artean bana daiteke puntuazioa, edo baldintzeta-koren bat betetzen bada eman.

4.– Puntuazio gehigarri hori emateko irizpideak ezberdinak izan daitezke hezkuntza-maila edo ikasturte bakoitzean.

5.– Atal honetako puntuak emateko irizpideen artean, baremoaren beste ataletan aintzat hartutako arrazoi eta egoerak ere egon daitezke. Hartara, arrazoi eta egoera horiengatik ematen den puntuazioa gehituko da. Baina kontuan hartu behar da atal honetan gehienez ere bi puntu osagarri eman daitezkeela.

6.– Atal honetarako hartutako irizpideen artean ezin dira inolaz ere onartu jaiotzagatik, arrazagatik, sexuagatik, erlijioagatik, iriztiagatik edota bestelako ezaugarri edo egoera indibidual nahiz sozialengatik diskriminatzaileak diren irizpideak. Halaber, ezingo da punturik eman horretarako berriaz deitutako proba edo azterketen emaitzen bidez.

7.– Herri-ikastetxe publikoetako Ordezkaritza Organo Gorenei eta itunpeko ikastetxeetako Eskola Kontseiluei dagokie zehaztea zer baldintza eskatuko diren atal honetan ezarritako irizpideak betetzen direla egiaztatzeko.

8.– Instrukzio edo jarraibide honetan ezarritakoa betetzen ez duten zentroek ezin izango dute baremoaren puntuazio hau aplikatu: zentroko Ordezkaritza Organo Gorenak edo Eskola Kontseiluak libreki zehazteko beste inguruabarrei dagokiena.

Hamazazpigarrena.– Errentako datuak egiaztatzea.

Ikastetxeek eskabideak barematu behar badituzte, aurkeztutako datuak egiaztatu beharko dituzte. Harik eta datuak egiaztatu eta emaitzak lortu arte, honela jokatuko dute:

1.– Eskatzaileen aitorpenak egiaztatu arte, kontuan hartuko dira egiaztatzeko baimena eman duten lagunen puntuazioak. Dena den, datuak egiaztatu eta gero, puntuazioak aldatu ahal izango dira, onartu eta baztertutakoen zerrendak prestatzeko.

2.– Datuak egiaztatu eta horien emaitzak jaso eta gero, eta errenta baloratzeko, ontzat emango dira Ogasunak egiaztatutako datuak.

3.– Egiaztapenen emaitzak behin-behineko zerrendak argitaratu eta gero jasotzen badira, ikastetxeak egoera hori hartu beharko du kontuan, behin betiko zerrendak egiteko. Egiaztapenen emaitzak onartutako ikasleen behin betiko zerrendak argitaratu ondoren jasoko balira, ikastetxeak horren berri eman beharko dio Ordezkaritzari.

Hamazortzigarrena.– Onartutako eta kanpoan utzitako ikasleen zerrendak.

1.– Onartutako eta kanpoan utzitako ikasleen behin-behineko zerrendek zehaztu egingo dute eskatzaile bakoitzak baremoko atal eta azpiatal guztietan lortutako puntuazioa; gainera, zerrenda horiek ikastetxeetan argitaratuko dira, Agindu honetako 3. artikuluan adierazitako egutegi-epeetan.

2.– Zerrenda horietan ezingo da azaldu ikasleen eskaerarik, baldin eta eskaerak egiteko epea amaitu ostean argitaratutako zerrendan jasota ez badaude.

3.– Beste ikastetxe batzuetatik datozen ikasleak onartutako ikasleen behin betiko zerrendetan sartzen badira, galdu egingo dute jatorrizko ikastetxean zuten plaza eta hutsik geratzen den plaza hori erabiliko da lehenengo fase horretan onartu gabe gelditu diren ikasleak kokatzeko.

4.– Bigarren eta hirugarren aukerak biak batera egingo dira, lehenengo aukeran lortutako puntu kopuruari lehenengo ikastetxearen berezko irizpidei dagokien puntuak kendu ondoren.

Bigarren edo hirugarren aukeran onartutako ikasleek automatikoki galduko dute jatorrizko ikastetxean zuten plaza.

Berdinketa hausteko zenbakia aplikazio informatikoak emango du eskabide orriaren datuak egiaztatzerakoan.

Prozesu honen ostean, Hezkuntza ordezkariak, Onarpena Bermatzeko Batzordeari entzun ondoren, onartuak ez diren ikasleei ikastetxea esleituko die. Haur Hezkuntzan, derrigorrezko irakaskuntza maila derrigorrezkoa ez denez, ahal den neurrian eskolatuko dira ikasleak, aske diren plazei erreparatua.

Plaza hutsik geratzen ez den ikastetxeetan itxaron zerrenda bat kudeatuko da. Zerrendan agertutako dira:

– Lehenik eta behin ikastetxea lehen aukeran eskatu duten personak baremoaren arabera hurrenkeran.

– Bigarren, ikastetxea bigarren edo hirugarren aukeran eskatu dutenak eta aurreko aukeretako bigarren eta hirugarren plazen esleipenentarako jarraitzen diren irizpideen arabera plazarik lortu ez dutenak.

5.– Gerora aldaketarik egin behar izanez gero, Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzak onartu beharko ditu aldaketa guztiak.

6.– Prozesu honetan ikaspostua lortu ondoren eta ikasturteko lehenengo egunetan ikaslea ikastetxera joango ez deneko aurreikuspenik bada, gurasoek edo tutoreek abisu eman beharko diote era sinesgarrian ikastetxeari.

Horrela ez jokatzuz gero, eta ikastetxera ez-agertzea mantentzen bada behar den justifikaziorik gabe, irailaren 15an eta eskolaratze beharrak bete ote diren egiaztatzeko ekintzak egin ondoren eta eskatzailearen entzun ondoren, ikastetxeak ez-agertzearen berri emango dio Lurralde Ordezkaritzari. Azken honek ikaspostu hustzat hartuko du ondorio guztietarako.

Hemeretzigarrena.– Erreklamazioak.

Onartutako eta kanpoan utzitako ikasleen behin-behineko zerrenden aurka, erreklamazioak jarri ahal izango zaizkio ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenari edo Eskola Kontseiluari agindu honek araututako epeetan.

Onartu eta kanpoan utzitako ikasleen behin-betiko zerrenden aurka erreklamazioak jarri ahal izango zaizkio Hezkuntzako lurralde-ordezkaritari, zerrenda horiek argitaratu eta biharamunetik hilabeteko epean; haren ebazpenak, berriz, administrazio-bidea amaituko du.

Administrazioak egoki deritzon dokumentazioa eskatu ahal izango du, aurkeztutako erreklamazioak ebazteko.

Prozesu horiek amaitu eta gero, esleitutako ikastetxe, etapa, maila eta ereduan matrikulatuta egongo dira ikasleak.

Hezkuntzako lurralde-ordez kariaren ebazpena sasoiz jakinaraziko da, ikaslea egoki eskolatzeko, eta, gainera, administrazio-bidea agortuko du.

Hogeigarrena.– Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak.

Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak onartzeko prozesua betetzeko, maila bakoitzeko ikastetxeetarako xedatutako prozedura eta egutegia zaindu beharko dira, eta Lurralde Ordez kari-tzek arduratu behar dute prozesu hori gauzatu eta betetzeaz.

Hogeita batgarrena.– Jarraibideak aplikatzea.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean aplikatu beharko dira jarraibide hauek.

## II. ERANSKINA

## IRIZPIDEAK ETA BAREMOA

a) Familia-unitatearen urteko errenta (atal honetan gehienez eman daitezkeen puntuak lortu arte pilatu daitezke kontzeptuak).

– 2016ko errenta-aitorpenaren zerga-oinarri orokorraren eta aurrezkiaren zerga-oinarriaren baturak ez baditu 9.172,80 euroak gainditzen: 0,5 puntu.

– 2016ko errenta-aitorpenaren zerga-oinarri orokorraren eta aurrezkiaren zerga-oinarriaren baturak zenbateko hori gainditzen badu: 0 puntu.

– Aurreko puntuazioa alde batera utzita, eskatzaileaz gain duen adin txikiko semeko/alabako: 0,25 puntu

– Atal honetako puntuazioa, gehienez ere: 1,5 puntu.

b) Bizilekuaren hurbiltasuna (kontzeptu ez metagarriak).

– Ikaslearen etxea eskatutako ikastetxearen eragin-eremuan egoteagatik: 5 puntu.

– Ikaslearen etxea eskatutako ikastetxearen eragin-eremu mugakidean egoteagatik: 2 puntu.

– Eskatutako ikastetxea dagoen herrian izatea ikaslearen bizilekua, baina haren eragin-eremutik eta eremu mugakideetatik kanpo: puntu 1.

– Ikasleak bizilekua Euskal Autonomia Erkidegoan izatea, baina ikastetxea kokatuta dagoen udalerritik eta eragin-eremu zein eremu mugakideetatik kanpo. 0,5 puntu.

– Eskatutako ikastetxearen edo ikastetxe horri atxikitako ikastetxe bateko eragin-eremuan izatea ikaslearen lantokia edo haren aitaren, amaren edo lege-ordezkarriaren bizilekua: 2 puntu. (puntu hauek ezin dira batu ikaslearen aitak, amak edo legezko tutoreak eskatutako ikastetxean lan egiteagatik eskuratu daitezken puntuekin).

– Atal honetako puntuak, gehienez ere: 5 puntu.

c) Ikastetxean ikasi edo lan egiten duten senitartekoak (kontzeptu ez metagarriak).

– Anaia-arreba bat edo gehiago eskatutako ikastetxean edota atxikitako ikastetxe batean matrikulatuta egoteagatik: 9 puntu.

– Aitak, amak edo legezko tutoreak eskatutako ikastetxean edo ikastetxe horri atxikitako ikastetxe batean lan egitea: 7 puntu. (puntu hauek ezin dira batu ikaslearen aitak, amak edo legezko tutoreak eskatutako ikastetxearen eragin-eremuan lan egiteagatik eskuratu daitezkeen puntuekin).

– Atal honetako gehienezko puntuazioa: 9 puntu.

d) Familia ugariko kide izatea.

– Maila orokorreko familia ugariko kide izateagatik: puntu 1.

– Maila bereziko familia ugariko kide izateagatik: 1,5 puntu.

e) Familia-harreran egotea:

– Ikasle eskatzailea familia-harreran egoteagatik: puntu 1.



- f) Desgaitasuna (kontzeptu honengatik, 2 puntu, gehienez ere).
- Ikasle eskatzailearena baldin bada: 2 puntu.
  - Aitarena, amarena, legezko tutorearena edo anai-arrebaren batena baldin bada: puntu 1.
- g) Kooperatiba-bazkide izatea.
- Familia unitateko kideren bat eskatutako ikastetxeko kooperatiba-bazkide izateagatik: 0,5 puntu.
- h) Ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenak edo Eskola Kontseiluak ezarritako beste egoera adierazgarri batzuk.
- Ikastetxeko Eskola Kontseiluak edo Ordezkaritza Organo Gorenak askatasunez erabakitako irizpideak (aurrez adierazitakoak ere izan daitezke), eta ezartzeko irizpide publiko, objektibo eta ez-diskriminatzaileak erabiliko dira (ezingo da jaiotzan, arrazan, sexuan, erlijioan, iritzian edo bestelako inguruabar edo baldintza pertsonal edo sozialetan oinarritutako irizpide diskriminatzailerik onartu): 1 puntu, gehienez ere (irizpideak ezagutzera emango dira eta Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritari jakinarazi beharko zaizkio eskabideak aurkezteko epea ireki baino lehen).